



**Arartekoaren 2014ko 2014S-1318-14 ebazpena, 2014ko uztailaren 8koa. Horren bidez, Aretxabaletako Udalarari iradoki diogu ezintasunen bat duten pertsonak barne hartzen dituzten familiek dituzten udal zerga-onuren inguruan ematen den informazioa areagotu dezala, Ogasun Arloko zerbitzuen jarduna Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz.**

### Aurrekariak

1. Familia batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu du eta azaldu du euren alabak % 81eko ezintasuna aitortua daukala ezintasun psikikoa baitu.
2. 2010. urtean toki erakunde horretako zerbitzuetara jo zuten Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) ordaintzeko eskatu zitelako. Une horretan, erantzun zieten ez zeudela zerga hori ordaintzetik salbuetsiak familiaren titulartasunekoa den ibilgailuaren zerga-potentziak zerga hori erregulatzen duen foru arauan ezarritakoa gainditzen duelako.
3. Orain dela gutxi, modu informalean eta toki administrazio horretatik at, jakin dute zerga horren salbuespenaz gozatu ahal dutela. Eskatu dute eta aitortu egin diete 2014. urtetik aurrerako ondorioekin.
4. Eragindako familiak aditzera eman du zaila dela zerga onura bat epe barruan eta dagokion moduan eskatzea ez baldin badaukazu horren berri, hau da, salbuespena kudeatzen duen administrazioak ez badu informaziorik ematen eta eragindako pertsona posibleentzat garrantzia daukaten araudiaren aldaketak egin direla zabaltzen ez bada. Modu berean, argudiatu dute udaleko gizarte zerbitzuek euren alabaren ezintasunaren berri dutela, izan ere, haiekin harremanetan egon dira urte hauetan zehar.

Aurrekari horiek ikusita, egokia iruditu zaigu ebazpen hau egitea, ondoko gogoeta hauekin bat eginez:

### Gogoetak

1. 2010. urtean abenduaren 23ko 4/2009 Foru Araua indarrean sartu zen. Horren bidez, zergei lotutako zenbait aldaketa gaineratu ziren eta, beste batzuen artean, TMIZan ezintasungatiko salbuespenaren irismenean eragina eduki zuten, horren gozamina honen menpe geratu baitzen: ibilgailuaren zerga-potentziak ezin ditu 14 zaldi-indar fiskalak gainditu.



Hala ere, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera salbuespena zabaldu zen eta, zehazki, guri dagokigunaren harira, *Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko*

*Zergaren uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatu duen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Arauaren 2. artikulua* amaierako paragrafo bat gaineratu zuen:

*«Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena».*

Hau da, eragindako familiak amaierako paragrafo horrek ezarri dituen baldintza berriak betetzen ditu.

2. Zergadunak eskubidea dauka haren eskubideen gauzatzearen eta zerga eginbeharren betetzearen inguruko informazioa eta zerga administrazioaren laguntza jasotzeko. Eskubide horren gauzatzearen ondorioz zerga administrazioak informazio zabala jarri behar du herritarren esku, haiek behar bezala likidatu ditzaten euren zerga-betebeharrak. Horregatik, batzuetan laguntza beharrezkoa da autolikidazioak egite aldera, baina, horrez gain, beharrezkoa da zerga araudia modu errazean eta ulertzeko moduan zabaltzea.

Herritarrek ez dute araudian egiten diren aldaketen berri edukitzen, beraz, ezinbestekoa da zerga administrazioak baldintza berriak jakinaraz diezaien horien menpe dauden herritarrei. Gutxienez, informazioa onura horiez gozatu duten pertsonen helarazi beharko lieke.

Jakin badakigu gure autonomia erkidegoko toki erakundeek dituzten baliabide pertsonal zein teknikoak ez direla alderagarriak. Toki erakunde txikien kasuan, hurbilagoak dira eta herriko auzotarren egoera pertsonalak ezagutu ohi dituzte. Hori oso elementu erabilgarria izan daiteke, aldaketak eta berritasunak zabaltze aldera, izan ere, informazioa modu eraginkorren eta informalean helarazten da. Kontuan hartu behar dugu udalerrria herritarretatik gertu dagoen administrazioa dela.

Horregatik, hobetzen laguntzeko asmoz eta etorkizunean antzerako egoerak gerta ez daitezen, egokitzen jo dugu honako iradokizun hau egitea:



## IRADOKIZUNA

1. Aretxabaletako Udalak, Ogasun Arloaren bitartez, ezintasunen bat daukaten pertsonentzako udal zerga-onuren inguruan ematen duen informazioa areagotu dezala. Modu berean, ogasun zerbitzuen eta udalerrri horretako gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa sustatu beharko litzateke, gizarte arloak ere informazioa eman diezaien ezintasunen bat daukaten pertsonak barne hartzen dituzten familiei, zehazki, toki erakunde horretan euren esku dauden onura zehatzen ingurukoa, izan ere, horiez gozatzeko helburuarekin sortu dira.
2. Horri dagokionez, egokitzen jo dugu mahai gainean jartzea ezintasun batek ahalmen ekonomikoa urritzen duela, ez bakarrik pairatzen duenaren ahalmena, baita bere familia ingurunearena ere: aurrekoak, ezkontideak eta ondorengoak, haiek baitira egunerokotasunean euren errenta erreal eskuragarria mugatzen duten gastu gehigarriei aurre egin behar dietenak. Zentzu horretan, ezgaitasunen bat duten pertsonak gizartean sartzeko eta bertan normaltasunez parte hartzeko ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dute egunerokotasunean, beraz, desiragarria da neurriek ahalegin hori kontuan hartzea. Era berean, ezin dugu alde batera utzi botere publikoei dagokiela beharrezkoak diren neurriak hartzea eta baldintzak sustatzea gizabanakoen eta taldeen berdintasuna erreala eta eraginkorra izan dadila.